

**BARNE ARAUDIAN TXERTATZKO PROPOSAMENA:
POBREZIA ENERGETIKOAREN KUDEAKETA
IGELDOKO KOMUNITATE ENERGETIKOAN (IKE KOOP. S.)**

Komunitateaz hitz egiten dugunean, tradizionalki, auzo, herri edo bizilagun-komunitate bateko kideen arteko konfiantza eta elkarrekintza-loturei egiten diegu erreferentzia. Horrela, komunitatearen esanahiaren barruan, badira denontzat oinarritzkoak diren elementu amankomunak: lurraldea, gure kasuan Igeldo eta mugakideak diren herrietako auzo batzuk; biztanleria eta biztanleen arteko elkarreraginak (pertsonak, erakundeak...); komunitatearen beharrak, nahiak, arazoak, intereseko gaiak... eta komunitate jakin batean herritarrek parte hartzeko dauden tresnak, Igeldotarren kasuan, adibidez, herrian indar handiz mantentzen den auzolana bezalakoak.

Igeldoko herriak elementu guztiak zaindu izan ditu eta zaintzen jarraitzen ditu, oso garbi duelako beti, nahiz eta Donostiako auzo bat bezala kontsideratu, komunitate berezia garelara, hau da, herri bat garelara.

Horregatik, Igeldoko Komunitate Energetikoa (IKE koop. S.) sortze prozesua martxan jarri genuen lehen unetik bat egin genuen gure komunitatea osatzerakoan Europatik proposatzen dizkiguten hiru dimentsio hauekin:

- Komunitate osoa barnean hartzea, haren aniztasun osoa, alegia; inor ere ez uztea
prozesu kolektiboetatik kanpo eta arreta berezia jartzea kolektibo zaurgarriengan.
- Biztanlearen ahalduntzea (gizabanakoak eta taldeak), erantzukizuna banaka eta taldeka hartzeko prozesuaren emaitza gisa.
- Eta Igeldotarren bizi-baldintzak hobetzea; aukera berriak sortzea eta bizikidetzaz-esparruak eraikitzea, beharrei erantzuteko, beti ere hurrengo belaunaldiei utziko dizkiegun bizi-baldintza eta ondareari erreparatuz.

Baina hiru dimentsio hauek errealitatea bihurtzeko, lehen eta behin gure herrian pobrezia energetikoa pairatzen ari diren herrikideengana iritsi behar dugu, egoera horretan dauden etxeen kopurua murrizteko beharrezkoak diren neurriak ezartzeko.

Eta ez zaigu erraza egiten ari!

Pobrezia energetikoa honela definitzen da: energia-horniduraren oinarritzko beharrak ase ezin dituen etxe baten egoera, diru-sarreraren maila eskasa dela eta.

Baina nola jakin Igeldon zenbat familia dauden egoera horretan?

Guk, datuen babeserako legea dela eta ditugun zailtasunei aurre egiteko, orain arte hiru bide hartu ditugu:

- Igeldoko Herri Kontseiluaren bidez (TET-a indarrean jarri arte herriko ekimenak bideratzen dituen elkarte) Donostiako Gizarte Zerbitzuei egoera zaurgarrian dauden familiei, gurekin kontaktoan jartzeko laguntza emateko eskatuz, asko eta asko horretarako ere zailtasunak izango dutelakoan.
- Iberdrolari, arazo ekonomikoak edukitzeagatik (kanpoan geratuko lirarteke beste arrazoiengatik dutenak) Igeldon bono sozialarekin zenbat familia dauden esateko eskaera bat aurkeztuz.

- Eta, orain arte aurreko bide horietatik inolako informaziorik jaso ez dugunez, pobrezia energetikoa pairatzen duten familien adierazleetan oinarrituz, herrian adierazle horiek betetzen dituzten zenbait familiak detektatzen saiatuz.

Hauek dira gure ikerketarako hartu ditugun adierazleak neurrigabeko gastu energetikoa, ezkutatutako energia-pobrezia, etxebizitzan tenperatura desegokia edota energia horniduren fakturak ordaintzeko arazoak dituzten familiak detektatzeko:

- Zeintzuk izan daitezke berogailurik ez duten herriko familiak. Adierazle hau hartu dugu ikerketek garbi agertzen dutelako neurrigabeko gastua energetikoa askoz handiagoa dela berogailurik ez duten etxeetan.
- Zeintzuk daude langabezian. Familiako pertsona nagusietako bat langabezian dagoen etheen erdietan baino gehiagotan omen dagoelako energia-gastu neurrigabea edota ezkutatutako energia-pobrezia.
- Guraso bakarreko familiak, ikerketek diotelako horien artean, bost familiatik batek energia arazoak duela.
- Etxean 65 urte edo gehiagoko pertsona bakarra zein bizi den, etxe mota guztien artean, hauxe omen delako tenperatura desegokia edota neurrigabeko gastu egokitu handiena duen kasua. Gainera, askotan gertatzen da bakarrik bizi diren adineko pertsona horiek jubilazio pentsioa oso txikia duten emakumeak direla, eta "Genero-ikuspegia" dokumentuan aipatzen dugun moduan, adi egongo gara emakumen horiek zeintzuk diren detektatzen eta laguntzen.
- Eta azkenik, goian aipatutako adierazleren bat/batzuk izan eta, etxea kanpotik ikusita, efizientzia energetiko kaskarra izan dezaketen baserrietan/etxeetan bizi den jendea (fatxadaren egoera kaskarra, leiho eta ate zahar eta desegokiak...).

Honetan ari gara, baina espero dugu, gure ikerketa hauek bukatu baino lehen, herriko TET-a eratuta egotea eta herrian egoera honetan egon daitezken familia hauei laguntzeko erraztasunak izatea.

Baina, gure kooperatibako estatutuetan, prozesu kolektibo hontatik kanpo herriko inor ere ez uztea eta arreta berezia jartzea kolektibo zaugarriengan esan ondoren, zer nolako konpromisoak hartuko ditugu IKE koop S-tik familia hauen berri izatean?

Kontuan hartuta zaugarritasun hiru maila desberdin daudela (zaugarria, zaugarri larria eta gizartetik baztertzeiko arriskuan dagoen zaugarri larria) hauek dira Kooperatibako Kontseilu Errektoreak Barne araudia onartzeko asanbladara eramango dituen proposamenak:

- Lehen eta behin, gure kooperatibako partaideak bihurtzeko proposamena luzatzea inolako ekarpenik egin gabe.
- Barne araudian, egoera horretan egon daitezkeen herrikideak, kooperatibako bazkide guztien arteko ekarpenen bidez gure proiektuetan sartzeko lehentasuna izango dutela adieraztea.
- IKetik, propio familia hauei zuzendutako laguntza zuzenak bideratzea (fakturaren zati bat ordaindu, egingo ditugun proiektu FVetan plaka kopuru jakin bat bere izenean jarri...)
- Proiektu jakin batzuk sustatzea familia hauek laguntzeko (etxeko leihoen aldaketa, bere egoerari aurre egiteko berogailu sistema egoki bat jarri...)

Aipatutako proposamen hauek zaugarritasun mailaren arabera nola eragingo luketen ikusteko taula:

ZAURGARRITASUN MAILA	SARRERAKO KUOTA	INBERTSIOAN IZANGO DUEN GUTXIENENKO %REN MURRIZKETA
Zaugarria	Exoneratua	%10
Zaugarria larria	Exoneratua	%20
Gizartetik baztertzeko arriskuan dagoen zaugarri larria	Exoneratua	%30

Igeldo, 2024ko otsailaren 2an

**PROPUESTA DE INCORPORACIÓN AL REGLAMENTO INTERNO:
GESTIÓN DE LA POBREZA ENERGÉTICA
EN LA COMUNIDAD ENERGÉTICA DE IGELDO (COOP. IKE S.)**

Cuando hablamos de comunidad nos referimos tradicionalmente a los vínculos de confianza e interacción entre los miembros de un barrio, pueblo o comunidad de vecinos. Así, dentro del significado comunitario hay elementos comunes que son básicos para todos: el territorio, en nuestro caso Igeldo y algunos barrios de pueblos limítrofes; las interacciones entre la población (personas, instituciones...); las necesidades de la comunidad, los deseos, los problemas, los temas de interés... y los instrumentos de participación ciudadana existentes en una determinada comunidad, como en el caso del Auzolan, que se mantiene con fuerza en el pueblo.

El pueblo de Igeldo ha conservado todos estos elementos y los sigue cuidando, porque siempre ha tenido muy claro, que aunque se le considere un barrio de San Sebastián, somos una comunidad especial.

Por ello, la Comunidad Energética de Igeldo (IKE, S. Coop.) S.) desde el primer momento en el que pusimos en marcha el proceso de creación, todas las personas estuvimos de acuerdo con las tres dimensiones que se proponen desde Europa para formar nuestra comunidad:

- Incluir a toda la comunidad y no dejar a nadie fuera de los procesos colectivos prestando especial atención a los colectivos vulnerables.
- Empoderar a la población (individuos y grupos) como resultado del proceso de asunción individual y colectiva de la responsabilidad en las energías renovables..
- Y mejorar las condiciones de vida de los Igeldotarras, creando nuevas oportunidades y construyendo marcos de convivencia que den respuesta a las necesidades, siempre teniendo en cuenta la vida y el patrimonio que dejaremos a las generaciones futuras.

Pero para que estas tres dimensiones se conviertan en realidad, primero tenemos que llegar a los ciudadanos que están sufriendo la pobreza energética en

nuestro pueblo para establecer las medidas necesarias para reducir el número de hogares en esta situación.

¡Y no se nos está haciendo fácil!

La pobreza energética se define como la situación de un hogar que no puede satisfacer las necesidades básicas del suministro de energía debido al escaso nivel de ingresos.

¿Pero cómo saber cuántas familias hay en Igeldo en esa situación?

Nosotros, para hacer frente a las dificultades que tenemos con respecto a la ley de protección de datos, hemos seguido hasta ahora tres caminos:

- A través del Herri Kontseilu de Igeldo (asociación que canaliza las iniciativas locales hasta la entrada en vigor del TET) pedir a los Servicios Sociales de Donostia - San Sebastián, que ayuden a las familias que se encuentren en una situación vulnerable a ponerse en contacto con nosotros, ya que seguramente muchas de ellas tengan dificultades para ello.
- Presentando una solicitud en la oficina de Iberdrola para conocer el número de familias con bono social que hay en Igeldo, pero solamente por problemas económicos (quedarían excluidos los que lo tengan por otros motivos).
- Y como hasta ahora no hemos recibido ninguna información de las anteriores vías, tratando de detectar algunas familias que cumplen estos indicadores en el pueblo, basándonos en los indicadores de las familias que sufren pobreza energética,

Los indicadores que hemos tomado en cuenta para nuestra investigación son los siguientes para detectar familias con gasto energético desmesurado, pobreza energética oculta, temperatura inadecuada en la vivienda o problemas de pago de facturas de suministros energéticos:

- Cuáles pueden ser las familias del pueblo que no tienen calefacción. Hemos tomado este indicador porque los estudios demuestran que el gasto energético desmesurado es mucho mayor en hogares sin calefacción.
- Quienes están en paro. Se dice que en más de la mitad de los hogares en los que una de las principales personas de la familia está en paro, hay un gasto energético desproporcionado o una pobreza energética oculta.
- Familias monoparentales, entre las que las investigaciones indican que una de cada cinco familias tiene problemas energéticos.
- Qué persona de 65 y más años vive sola en casa, porque entre todos los tipos de hogares, este caso es el que normalmente presenta una temperatura inadecuada o un gasto desproporcionado más ajustado. Además, muchas veces ocurre que estas personas mayores que viven solas son mujeres con una pensión de jubilación muy baja y, como mencionamos en el documento "Perspectiva de género", estaremos atentos a detectar y ayudar a estas mujeres.
- Y, por último, aquellas personas que, teniendo alguno/s de los indicadores arriba mencionados, viven en caseríos/casas que, vistas desde fuera, puedan

parecer tener poca eficiencia energética (mal estado de la fachada, ventanas y puertas antiguas e inadecuadas...).

Estamos en ello, pero esperamos que antes de que finalicen nuestros estudios, el TET de la localidad esté formado y tenga facilidades para ayudar a estas familias que puedan estar en esta situación en Igeldo a ponerse en contacto con IKE.

Pero, tal como lo hemos reseñado en los estatutos de nuestra cooperativa, después de decir que no podemos dejar a nadie del pueblo fuera de este proceso colectivo y que se poner especial cuidado en los colectivos más vulnerables, ¿qué compromisos adquiriremos desde IKE koop S ante estas familias?

Teniendo en cuenta que existen tres grados diferentes de vulnerabilidad (vulnerable, vulnerable grave y vulnerable grave en riesgo de exclusión social) las propuestas que el Consejo Rector de la Cooperativa elevará a la Asamblea para la aprobación del Reglamento de Régimen Interior son las siguientes:

- En primer lugar, proponer la integración de estas familias a los miembros de nuestra cooperativa sin aportación alguna.
- Señalar en el reglamento interno, que los posibles vecinos que puedan estar en esta situación tendrán prioridad para incorporarse a nuestros proyectos a través de las aportaciones de todas las personas socias de la cooperativa.
- Canalizar desde IKE ayudas directas dirigidas específicamente a estas familias (pagar parte de la factura, poner a su nombre un número determinado de placas en los proyectos FV que vamos a realizar...)
- Promover proyectos concretos para apoyar a estas familias (cambio de ventanas en las casas, instalación de un sistema de calefacción adecuado para hacer frente a su situación...)

Tabla de cómo podrían influir las siguientes propuestas como mínimo en función del grado de vulnerabilidad:

GRADO DE VULNERABILIDAD	CUOTA OBLIGATORIA DE ENTRADA	% DE REDUCCIÓN EN LA CUOTA DE INVERSIÓN
VULNERABLE	EXONERADA	10%
VULNERABLE SEVERA	EXONERADA	20%
VULNERABLE SEVERA EN RIESGO DE EXCLUSIÓN	EXONERADA	30%

Igeldo, 2 de febrero de 2024